

IRABAZI ITURRIAK

Enpresa bat egingarria izateko irabazi iturriak izan behar ditu. Kontuan hartuta gure produktua 30-40 euro ingurukoa dela, ordainketa bakarraren bidezko diru sarrerak egingo ditugu, hau da, bezeroek momentuan ordainduko dutela. Ordainketa errepikarien bidez lortuko bagenitu diru sarrerak ez zen zentzuzkoa izango, izan ere, gure produktuaren prezioa oso baxua da bezeroak txanda bat baino gehiagotan egiteko ordainketa.

Guk saltzen duguna produktu fisiko bat denez, irabazi iturriak aktiboen salmenta bidez lortuko ditugu. Erabilera eta harpidetza primak ezingo genituzke erabili, izan ere, ez dugu zerbitzurik eskaintzen. Horrez gain, ez dugu gure produktua alokairuan eskainiko, izan ere, higiene kontuengatik, ez delako gomendagarria pertsona batetik bestera pasatzea, sexu bidezko gaixotasunak transmititu daitezkelako.

Gure prezioak finkoak izango dira, hau da, aldagai estatikoen arabera aurredefinituta egongo direla. Produktuak, lehen esan bezala, 30-40 euro inguru balioko du eta ezaugarriek baldintzatuko dute prezioa. Ezaugarriak diseinu mota eta materiala izango dira eta hauen arabera produktuak gutxiago edo gehiago balioko du. Etorkizunera begira, inflazioan igoera kontuan hartuz, gure prezioak aldatzen joan daitezke, gure produktua kalitatekoa izan dadin.